

B

BARREN



Alcorta, Lehen Mailako taldea

TOKIKOM



AUPA

ELGOIBAR

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI
LANBIDE HEZIKETA SAILA



INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

(L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo berria)

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

HIRU URTETAN ERDI MAILAKO BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU:

- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

Matrikula: Uztailak 5etik 11ra

PRAKTIKAK ATZERRIAN (LEONARDO) NAHIZ BERTAN



Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • azkoitia@urola.org

www.urola.org



Iñigo
Lariz

Aupa, Ainhoa. Gure eskutitzak norbaitek irakurtzen ditu gutxienez; ez da gutxi. Gainera esaerak dioen bezala, “zenbat buru hainbat aburu”, eta noski, mundu guztiak ez ditu gauzak gure moduan ikusten, baina kritikatu aurretik gure ingurua hobeto ezagutzeko esango nioke.



Ainhoa
Lendinez

Kaixo, Iñi!

Lehen galdera zuretzat: joan zaizkizu hantzetako minak Aizkorriko lasterketaren ostean? Eta bigarrena gure irakurle fidelarentzat: ba al dakizu noiz joan nintzen lehenengoz Aizkorriara?

Gaurko gaira etorrita... Kirola egitean substantzia bat askatzen omen dugu, ondo sentiarazten gaituena. Bada jaten dugunean ere, euskaldunok bederen, substantzia bera askatzen dugula esango nuke.

Jatea plazer handia da, eta gertutik zaindu beharreko giza-beharra ere bai. Zer jan, hura izan! Kirola eta jatea ezinbestekoak dira niretzat osasuntsu sentitzeko. Bestalde, mundu globalizatuak aurrerapen asko ekarri dizkigu, bai. Hala aurrerapenak nola atzerapenak. Izan ere, teknologia berriak baliagarriak dira oso, baina baita arriskutsuak ere. Gu menderatzera iritsi dira. Telebistatik ordenagailura, eta ordenagailutik sakelako telefonora bizi gara. Zenbat gauza galtzen ditugun bide horretan! Guraso askori entzuten diet, esaterako, euria ari duenetan, zer egin jakin ez, eta haurrak hartuta merkataritza gune handietara joaten direla.

“Jatea plazer handia da, eta gertutik zaindu beharreko giza-beharra ere bai”

Nik dakidala, txikia nintzenean ere erruz botatzen zuen euria Euskal Herrian. Orduan ez zegoen merkataritzagune handirik, eta aspertu gutxitan egiten ginen. Biderik errazena ez da beti onena. Are gehiago, askotan, esfortzua ostean hobeto ere sentitzen gara. Horregatik, merezi du ariketa fisikoa egitea, ondo elikatzea, geure buruari mugak jarri eta inguruan ditugun baliabideak zentzuz erabiltzea. Inork menderan hartu gabe, bizitza guk geuk gidatzea. Orduan bai, orduan, mendi buelta bat bezain gozagarri egiten zait niri bederen, sofan botata film on bat ikustea.

Ekaina atarian gauden honetan, eguraldia zoro-zoro daukagu. Asteburuan Aizkorriko gailur inguruan ibili ginenok elurra nabaritu genuen, nahiz eta han bildutako jendearen animoen berotasunak elurraren hotza aise estali zuen. Baina, urtero legez laster iritsiko zaigu lehen be-roaldia eta *bikini operazioaren* marketinak bonbardatuko gaitu. Inkesten arabera, emakumeen %80k nahiago dute argal egotea osasuntsu egotea baino. Duela zenbait hilabete irakurri nuen umeen gizentasun tasa altuak alarma piztu zuela gurean. Estatu Batuetan baino ume gizen gehiago dauzkagu. Hazkundean arazoak eta nagusitan gain-pisua edo gizentasuna izateko arriskua izugarri handitzea dakar horrek. Ikerketaren arabera, bi arrazoi daude arazoaren atzean: ariketa fisikoa eta elikadura. Esan beharrik ez dago ordenagailuak eta bideo-jokoek zenbat ordu kentzen dizkiguten, eta batez ere, ume garaian kalean jolasteari zenbat ordu kentzen dizkieten.

“Gizakiok ariketa fisikoa egiteko prestatuta gaude, elikagaiak lortzeko”

Gizakiok ariketa fisikoa egiteko prestatuta gaude, elikagaiak lortu ahal izateko. Baina gaur egun supermerkatuan dugu bizitzeko behar dugun guztia, eta, gainera, etxetik irten gabe egin ditzakegu erosketak, hau da marka! Hozkailua ireki eta gosea ase. Baina ohartu al gara oparotasun horrek gaixotu egiten gaituela?

Bazkideon parte-hartzeak lanean segitzeko gogoia ematen digu.
Aurrerantzean ere gertu nahi zaituztegu.
Eskerrik asko!

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko, eta segi horrela!

Herrira herri mugimenduak eskerrak eman nahi dizkie larunbatean plazan egin zen ekitaldian parte hartu zuten guztiei, kalez-kale egin zen parodian parte hartu zutenei, txosna muntatzen lagundu zigutenei, eta nola ez, bertara hurbildu zineten guztiei.

Eskutitz honen bitartez dei zabala egiten diegu herriko eragile sozial, sindikal eta politikoei, eta oso bereziki herritar guztiei: parte har dezatela hilabeteko azken ostiraletan egiten den elkarteratzeetan. Euskal Presoak Euskal Herrira ikurra berriro hartu eta haien presentzia publiko eta masiboa ziurtatzen lagun dezatela.

Denon esku dago eta denon artean lortuko dugu Euskal Preso eta lheslariak herriratzea.

Elgoibarko Herri bilgunea ☛

3x3 saskibaloi-txapelketa

Elgoibar Ikastolaren 50. urteurreneko antolatzailen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean ospatutako 3x3 saskibaloi-txapelketa antolatzen lagundu zutenei: Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Elgoibarko Saskibaloi-Taldea, Beristain logistikabanaketa, Alzolako Urak, Iturri taberna, Mahats ardotegia, Jai Alai taberna, Arkupe okindegia eta, bereziki, parte hartu zuten Elgoibarko eta Mendaroko neska-mutilei.

50. urteurreneko kirol komisioa ☛

Zaborrik ez!

Zaborrik ez sortzia egun ditugun ohiturekin utopia bat dala esan geinke. Halere, naturara begiratuaz, ekosistemek ez debela zaborrik sortzen ikusten dogu, baten hondakina bestiarren elikagaixa dalako, ziklua itxiz.

Bizi geran lekua ez da lehengaixetan aberatsa, eta erabiltzen ditugun materialak ere ez dira bere horretan bestien lehengai bihurtzeko errezak (plastiko eta abarrak), ez naturalki behinik behin. Halere, badaude horruntz duazen *Ekosistema Industrialak* moduko teoriak (ikus Elgoibarren.net webgunean Okil beltzen txokoa), eta ez ekologikoki soilik, ekonomikoki ere errentagarrienak diranak.

Natura imitatuz, herri-ekosistema bat lortzeko, herritarrok ere badaukagu zer egiña. Badiru-

di momentu honetan Gipuzkuan alderdi politiko guztiek zaborri irtenbide bat billatu nahi diuela (Europako legediak hala eskatuta), baiña era berrian alderdi bakoitza bere ideari gogor eusten tematuta dagoela dirudi. Guk konfrontaziotik haratago joan nahiko genduke; ingurumena zaintziaz gain errentagarria dalako; zergaitik ez litzateke posible izango industrian bezela herri hondakiñekin ere ziklua itxia? Ze aukera daude horretarako? Alderdi politikuez aparte, ze iritzi dute gairontzeko talde eta erakundiek?

Jarraituko du...

Okil Beltzak ☛

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzak argitaratuko.



Mendaron ez dago haur txiki-entzako parkerik: "Mendaron ez daukagu ume txiki-entzako ziburu aproposik. Herriko parkeetan ez dago otar-zibururik eta ume txikiak ezin dira dauden ziburuetan ibili. Pena da, Mendaron ume asko jaio baitira azkenaldian, eta inguruko herrietara joan behar izaten dugu parke egokietan jolastera, Elgoibarrera, esate baterako. Mendaroko herria sustatzeko eta jendea bertan gelditzeko, Udalak haur parkeak hobetu beharko lituzkeela iruditzen zaigu".



Elgoibar Ikastola-ren 50. urteurren-entzako antolatzaileek eskerrak eman dizkiote Elgoibarko Saskibaloitaldeari, 3x3 saskibaloitxapelketa antolatzen laguntzeagatik. Bereziki, eskerrak eman dizkiote Karlos Lahozi, Joseba Tamayori, Aitor Hernandezi, Oier Etxaniz, Mikel Zubiaurreri eta Ramses Lahozi, arbitro lanetan aritzeagatik.

Txalo bero bat 'Gazta zati bat' dokumentala Elgoibarrera ekartzeagatik: "Mila esker *Gazta zati bat* dokumentala Elgoibarrera ekarri zutenei, eta zorionak, Nazioen Mundua herri ekimenekoei, herrigintzaren adibide ederra martxan jarri dutelako. Aupa Idiazabal-tarrak!".

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

MAIATZA ETA EKAINEN SUSTAPENA

Friendo Santa Ana 4 eta 6 - Tel.: 943 741 234
Elgoibar (Gipuzkoa)

%15





Zure etxeako hornidura ahalik eta errealena izan dadin 3Dko proposamenak erakusten dizkizugu. Altzarien antolaketa ezberdinak frogatzen dizkizugu!

%5

KANAPEA eta KOLTZOIA
Eraisgarri tapizatutako kanapea



Patx. Sistema	Leizea	Osaketa	
135x190	1271€	779€	+ %30ko diruzketa
150x190	1454€	829€	+ %30ko diruzketa

IMANOL LARRAÑAGA

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak bazkideen Batzar Orokorra egin zuen joan den astean. Baina ez zen ohiko Batzar Orokorra izan; berezia eta garrantzitsua zela azpimarratu zuten arduradunek, eta badirudi bazkideek jaso zutela mezua. Kultur Etxeko hitzaldi-gela bazkidez beteta zegoela egin zen batzarra, eta parte-hartzea ere aspaldi ez bezalakoa izan zen. Imanol Larrañaga elkarte-ko dinamizatzailearekin egon gara batzarraren inguruan jarduteko. Imanolek esandakoaren arabera, 2012 eta 2013 urteak garrantzitsuak eta erabakigarriak izango dira Elgoibarko Izarrarentzat.



“Baloratu, hausnartu eta erabakiak hartzeko garaia da”

Joan den eguazteneko Batzar Orokorra berezia eta garrantzitsua zela esan zenieten bazkideei. Zergatik?

Aurten eta datorren urtean erabaki asko eta garrantzitsuak hartuko ditu elkarteak, eta horien berri eman nahi genien bazkideei. Izan ere, kasurik gehienetan bazkideak izango dira erabakiak hartuko dituztenak, eta jakinaren gainean egon daitezten konbokatugenuen Batzar Orokorra. Orain arte egindako lana jaso eta baloratu ondoren, hausnartu eta erabakiak hartzeko garaia da.

Eta zer da, bada, Elgoibarko Izarrak baloratu, hausnartu eta erabaki beharrekoa?

1990etik aurrera egindako lana jaso eta baloratu dugu. Orain, berriz, erabakiak hartzeko garaia iritsi da. Bestiak beste, BARRENEK etorkizuna erabaki behar dugu las-

ter. Bailarako komunikazio-proiektua amaitzeaz gaude, eta horrekin zer egin erabaki behar dugu. Gainera, datorren urtean bi zeregin garrantzitsu daukagu: batetik, elkar-tearen 50. urteurrena ospatu behar dugu, eta, bestetik, ondo pentsatu eta erabaki behar dugu zelako elkarte nahi eta behar dugun 2014tik aurrera.

Bailarako komunikazio-proiektua prest daukazuela diozu?

Bai, BARRENEK 20 urte beteko ditu aurtengo abenduan, eta, gure ustez, eraldaketa sakon bat behar du. Oso gustura gaude BARRENEK egin duen ibilbidearekin, inork espero ez zuen bidea egin du, baina etorkizuna ziurtatu nahi badugu, proiektu sendo eta bateratuak behar direla uste dugu. Herri bakoitzak bere proiektua izan beharrean, bailarako euskara

elkarte guztiok bat egin eta proiektu sendoa aurkeztu nahi diogu bailarari. Horren atzetik gabilta, behintzat, azken bi urteetan. Proiektua prest dago, eta aurkezpenak egiten dihardugu; baina, kontuz, oraindik ez da erabakirik hartu.

Noiz eta zelan erabakiko duzue BARRENEK etorkizuna?

Okerrik ez bada, uda aurretik erabakiko dugu zer egin. Ekainaren lehen hamabostaldian, bailarako herri bakoitzean aztertuko da, eta gero, bigarren hamabostaldian, bailara mailako erabakia hartuko dugu. Dena dela, behin betiko erabakiak euskara elkarteetako batzar orokorretan hartuko dira. Gure kasuan, seguruenez uztailan konbokatuko dugu BARRENEK etorkizuna erabakiko duen Batzar Orokorra.

Proiektuei lotutako beste erabaki potolorik bai?

Bai, aisialdiari lotutako beste proiektu handi baten etorkizuna ere airean daukagu. Azkeneko bost urteotan kudeatu ditugun Gaztelekua eta Ludotekaren esleipena aurtengo irailan bukatuko zaigu, eta datorren astean aurkeztuko dugu lizitazio berrirako proiektua. Lehiaketa irabazten badugu, guretzako estrategikoa den proiektu horrekin segituko dugu, baina baliteke besteren batek irabaztea. Ea asmatzen dugun.

Batzar Orokorrean mezu pesimista edo katastrofista zabaldu zenutela esan zuen bazkide batek. Zer dela eta?

Bai, badirudi ez genuela mezua zabaltzen asmatu. Egoeraren berri ematen saiatu ginen; bi urteotan elkarrekin hartu behar dituen erabakien berri eman nahi genuen, baina badirudi tonuan ez genuela asmatu. Planteamendua ez da pesimista, inondik inora. Indarrez gaude, energiak beteta, eta horregatik planteatzen dugu etorkizunaren gaineko gogoeta sakona egitea. Horrek ez du esan nahi orain arte egin dugunarekin konforme ez gaudenik. Gustura gaude egindakoarekin, dudarik gabe, baina hobeto egin daitekeela uste dugulako ekin genion gogoeta-prozesuari.

Elgoibarko Izarraren ziklo baten amaieran gaudela aitatu zenuten Batzar Orokorrean, ezta?

Bai, hori esan genuen, baina, beharbada, goizegi da ziklo batean amaieran gaudela esateko. Batzuen buruetan aspalditik dabil ideia hori bueltaka, eta hori horrela izango den sentsazioak dauzkagu, baina azkenean bazkideek erabakiko dute aro baten amaiera izango den ala ez. Orain arte bezala segitzea erabakitzen bada, adibidez, ez da etapa amaierarik izango. Hala ere, zikloarena subjektiboa izan daiteke. Batek etapa baten amaiera ikusten duen tokian, besteak aldatuta batzuk baino ez ditu ikusiko. 1990ean, adibidez, batzuek ziklo baten amaiera ikusi genuen, baina bazkideren batek esan zigun ez zegoela ados. Hala ere, garrantzitsuena 2014tik aurrera zer egin nahi dugun ondo erabakitzea da.

1990eko eta gaur egungo egoerak konparatu zenituzten batzarrean.

90eko egoerarekin antzekotasunak ikusten ditugula esan nahi genuen, baina badirudi ez zela ondo ulertu. Orduko eta gaurko egoerak

ez daukate zer ikusirik, hori nabarmena da. 1990ean elkarrekin desagertzeaz zegoen, hutsaren parean. Gaur egun, berri, indartsu eta proiektuz josita dago. Baina bada antzekotasunak: 90ean etorkizunari lotutako hamaika galderari erantzun behar izan genien, eta gaur egun ere galdera berdinak edo antzerakoak egin dizkiogu geure buruari. Horregatik esan genuen antzerako egoera batean gaudela.

“Bazkideen papera funtsezkoa izango da bi urteotan”

Eta non aurkituko dituzue galdera horien erantzunak?

Galdera horiei denei erantzuteko, erreminta ezin aproposagoa daukagu: *Atzera begira aurrera egiteko* dokumentua. 1990etik hona egindako lana jaso eta baloratu dugu; lorpenak identifikatu ditugu, eta baita hutsuneak ere. Gainera, herritarren iritziak ere jaso ditugu. Eta amaieran, etorkizunari begirako gogoeta txiki bat zabaldu dugu. Azken atal horretan 2014tik aurrera Elgoibarko Izarra izango denaren pista asko bilatuko ditugu. Hor daude, neurri handi batean, etorkizunaren gaineko galderen erantzunak, baina behin

betiko erabakiak datorren urtean hartuko ditugu. 2013ko apirila eta uztaila artean erabakiko dugu Elgoibarko Izarra zer izango den etorkizunean.

Hasi al zarete Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzeko programa prestatzen? Zer-bait aurreratzeko moduan al zaude?

Bai, dagoeneko prest daukagu proposamen bat, baina, kasu honetan ere, oraindik gauza asko daukagu erabakitze eta lotzeko. Helburua Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzea da. Elkarte honek asko eman dio Elgoibarko herriari, eta hori ospatu egin behar dugu hala nahi duten guztiarekin batera. Urte osoko programazioa prestatu nahi dugu, baina martxoan izango da urteurrenako ekitaldi nagusia.

Amaitzeko, zein izango da bazkideen papera hain garrantzitsuak diren bi urteotan?

Bazkideen papera funtsezkoa eta erabakigarria izango da, bazkideek hala nahi badute. Erabaki garrantzitsu guztiak bazkideen parte-hartzearekin eta oniritziarekin hartu nahi ditugu, eta bi urteotan etengabe joko dugu bazkideengana haien iritziak eta ekarpenak jasotzeko. Langile profesionalen presentzia eta pisua handitzen joan den heinean, bazkideen eragina eta parte-hartzea gutxitzen joan da, baina oso argi daukagu bi urteotako erabakiak bazkideek hartu behar dituztela. Batzar Orokorrean bazkide asko azaldu zen, eta haien parte-hartzea inoiz ez bezalakoa izan zen. Nahiko genuke batzarrean bizitako bi urteotako ibilbidearen lehen urratsa izatea.

ELGOIBARKO IZARRAREN BI URTEOTAKO MUGARRI GARRANTZITSUENAK

- **Maiatzak 28:** Ludoteka eta gaztelekua kudeatzeko proiektua aurkeztuko du, eta uztaileko jakingo da lehiaketa irabazi duen ala ez.
- **Ekainak 15-30:** *Atzera begira, aurrera egiteko* balorazio-dokumentuan jasotakoa zabalduko du bazkideen eta herritarren artean.
- **Uztaila:** Bailerako komunikazio-proiektuari baietza eman ala ez erabakiko du Batzar Orokorrean.
- **Iraila:** Lehiaketa irabazi ezean, ludoteka eta gaztelekua kudeatzeari lagaiko dio.
- **Abendua:** Bailerako komunikazio-proiektuari baietza emanez gero, BARRENI agur esan eta bailerako komunikazio-proiektua jarriko da martxan.
- **2013ko martxo:** Elgoibarko Izarrak 50 urte beteko ditu.
- **2013ko apirila-uztaila:** Elkarrekin etorkizunaren gaineko hausnarketa egingo du, eta behin-betiko erabakiak hartuko ditu.

Tabakorik gabeko egunaren harira, erretzaileentzako informazio gunea jarriko dute hilaren 31n, Kalebarren plazan

Osasun arloko profesionalak osasun azterketak egingo dizkiete erretzaileei

Tabakorik gabeko Nazioarteko Eguna izendatu dute maiatzaren 31, eguna, eta horren harira, Minbiziaren Kontrako Elkartek eta Osakidetzak erretzaileentzako informazio gunea bat jarriko dute egun horretan Kalebarren plazan. 10:30etik 13:00ak bitartean, osasun arloko profesionalak bi froga egingo dizkiete postura gerturatzaren erretzaileei, euren osasun egoera zein den jakiteko. Era berean, nikotinarekiko duten menpekotasuna neurtzeko inkesta ere betearaziko diete, eta datu horiekin erretzaileen liburuxka deitzen dutena osatuko dute.



Pintxo lehiaketa antolatu dute Mendaron gaurko eta biharko

Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak gaur eta biharko. Guztira, Mendaroko sei tabernak parte hartuko dute: Aitzbeltz, Arrats, Luzaide, Menditxo, Txirristaka eta Uztargi. Euro baten truke salduko dituzte pintxoak gaur 18:00etatik aurrera eta bihar egun osoz. Lehiaketako pintxoak lehiaketako logotipoarekin markatuta egongo dira tabernetan, eta Udalak epaimahai batek aukeratutako hiru pintxo onenak sarituko ditu. Era berean, baina, herritarrek ere izango dute euren pintxo gustukoena hautatzeko aukera. Horretarako, batetik hamarrerako puntuazioa eman beharko diete pintxoek.

Osasunerako hezkuntza sustatzeko, 16.480 euroko laguntza eman die Elgoibarko Udalak herriko lau ikastetxeri



Ikasleen artean osasunerako hezkuntza sustatzeko, osasunaren hezkuntza lantzeko programak garatzeko laguntza eman du, aurten ere, Elgoibarko Udalak. Guztira, 16.480 euro banatu ditu lau ikastetxeren artean: Herri Eskola, Ikastola, Arreiturre, B.H Institutua eta Meka GLBHI. Diruz lagundutako programa horietan honako gaiak lantzen dituzte: balioak, drogamenpekotasunen prebentzioa, hezkuntza afektiboa eta sexuala, elikadura egokiaren eta ariketa fisikoaren onurak, sexu indarkeriaren prebentzioa, ingurumena eta mugikortasuna.... Hezkuntza eragileekin sinatutako hitzarmen hori tarteko "udalerriko haurrei, nerabeei eta gazteei garatzeko aukera eta haurtzaroz, nerabezaroz eta gaztaroz egonkortasunez eta jarraitortasunez gozatzeko aukera" eskaini nahi die Elgoibarko Udaleko Gazteriak.

Lekua **Gabriel Kurutzelaegi kalea**



Gabriel Kurutzelaegi kalea eta Melitongo zubiaren aurrean dagoen trenbide azpiko bidea lotu egingo dituzte laster, eta hori dela eta, Udala aurreproiektu bat lantzen ari da autoak ikastolara igotzeko bide hasieran dagoen txikanea kentzeko eta aparkatzeko plaza gehiago izango dituen aparkaleku bat antolatzeko. Abuztuan egingo dituzte obrak.

Lehiaketa **Elgoibarko pintxo lehiaketa**

Laugarren urtez jarraian, pintxo lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Aurten, baina, bi egunetan barik lau egunetan egingo da: ekainaren 19an, 20an, 21ean eta 22an. Ekainaren 19an eta 20an (martitzena eta eguaztena) 18:00etatik 22:00etara, eta ekainaren 21 eta 22an (eguna eta barixakua), eguerdi partean 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 18:00etatik 22:00etara. Aurten, gainera, hiru sari izango dira: epaimahaiak aukeraturako pintxo onenak jasoko duena, herritarrek emandako saria, eta sari berezia edo Elgoibarko baserrietako produktuekin osatutako pintxo onenak jasoko duena.

Ekimena **Eskolako Agenda 21 Mendaron**

Datorren maiatzaren 29an Udaltzatzen osoko bilkura berezia egingo dute Mendaroko udaletxean, 11:00etan, Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan. Ikasturtean zehar mugikortasunaren gaineko diagnostia egin dute Mendaroko ikastolako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek, eta hain justu ere, egindako lan hori aurkeztuko diete herriko agintariei datorren asteko osoko bilkuran.

Landareak landatzeko tailerra egingo dute bihar, hileko azken zapatuko ferian

Hilabeteko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren, eta ohiko egitarauaz gain, landareak landatzeko tailerra ere izango da oraingotan Kalebarren plazan, 11:30etik 14:00etara. Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta dago tailerra, baina hala ere, nagusiek ere parte hartzeko aukera izango dute. Sallobente-Ermuaran auzoan barazki ekologikoak ekoizten dituzten Ekoalboraz elkarte-koek emango dute tailerra. Txosnaren ardura, berriz, Atletismo elkarteak izango du, eta saiheski eta txorizo pintxoak eta salda prestatuko dituzte Kalebarren plazan, Elgoibarko base-ri eta harategietako produktuekin.

Hondakin organikoentzako edukiontzi marroia Altzolan eta Sigman ere bai

Altzolan eta Sigman ere jarriko dituzte aurki hondakin organikoentzako edukiontzi marroiak. Edukiontzia erabiltzeko alta eman beharra dute herritarrek, giltza behar delako ontzia zabaltzeko. Horretarako, Herritarrentzako Arreta Bulegora jo behar da edota 943 741 050 telefono zenbakira deitu.

Asteko irudia **Goazen Plazara!**



Preso eta iheslariaren aldeko Herrira mugimenduak deituta, Goazen Plazara ekimena egin zuten zapatuan Elgoibarren ere, eta ehun bat lagun elkartu ziren Kalegoen plazan. Txalapartak lagunduta, kartzelatik irten berri diren presoek egin ohi dieten ongi-etorria irudikatu zuten plazan, eta, ondoren, taldeko argazkia atera zuten.

Apirilean...

JAIOTAKOAK



Lore Basurto Gorostiza
Apirilak 7
Jon eta Nerea



Iara Olabarria Martin
Apirilak 18
Cristian eta Pakene



Sara Sasiain Laskurain
Apirilak 23
Asier eta Lucia



Lea eta Malen Arregi Barandiaran Apirilak 17
Lutxi eta Maite



Hodei Sansuan Zamorano Apirilak 23



Eulali Arkauz Irondo
Apirilak 5
Enrike eta Arrate

Laiene Ibirriaga Izagirre
Apirilak 7
Gaizka eta Maite

Ane Muñoa Murua
Apirilak 28
Jokin eta Amaia

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 744 112** telefonora edo bidalie-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora. Argazkia jartzeagatik **3 €** ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, **4 €**.

HILDAKOAK

Maria Suarez Etxeberria • **94 urte** • Apirilak 8
Jose Mari Larrañaga Orbegozo • **85 urte** • Apirilak 10
Evaristo Lopez Garcia • **87 urte** • Apirilak 11
Ana Garmendia Lasa • **95 urte** • Apirilak 30

ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA**

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekua) 635 756 295

ESKERTZA

PURIFICACION GONZALEZ MUÑOZ

2012ko maiatzaren 21ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Mila esker San Lazaro egoitzari.



Victor Zubiaurre dultzaineroa omendu dute Biasterin, Gaiteroen Egunean

Mari Karmen Azpiazu alargunak jaso zuen oroigarria

Gaiteroen Eguna ospatu zuten joan zen domekan Biasterin, eta aurtengo edizioa berezia izan da Elgoibarko musikarientzat. Izan ere, iazko abenduaren 20an hil zen Victor Zubiaurre omendu dute. Mari Karmen Azpiazu alargunak jaso zituen oroigarria eta Victorren izena inskribatuta zeukan ardo pitxarra. Hunkituta jaso zituen opariak, eta eskerrak eman zizkien bertaratu ziren guztiei. 38. edizioa izan da aurtengoa, eta laugarren ediziotik hutsik egin gabe joan izan da Victor Zubiaurre gaiteroen ospakizun horretara, Txomin Mujika eta Rikardo Gorritirekin hirukoa osatuz.



Mari Karmen Azpiazu oroigarria jasotzen.

Zine foruma, gaur gauean

Haizea emakume taldeak zine foruma antolatu du gaur gauerako. *Quando menos te lo esperas* filma ikusi eta aztertuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. 21:30ean kafetxo bat hartu, eta 22:00etan hasiko da saioa, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Javitoren bakarrizketa, egunean

Datorren egunean Javito umoregileak bakarrizketa eskainiko du Tantaka tabernan. 22:00etan hasiko da ekitaldia.

Altzari erakusketa, domekara arte

Berriztutako altzarien erakusketa jarri dute ikusgai Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta domekara arte egongo da zabalik. Interesatuek 18:30etik 20:30era bitartean bisitatu dezakete erakusketa.

Jasone Osororen 'Ezekiel' liburua izan da DBHko ikasleen artean gustukoena Juul Sarietan



Jasone Osororen *Ezekiel* liburua izan da DBHkoen gustukoena irakurzaletasuna sustatzeko Juul Sarietan. 2010ean eta 2011n ere liburu berak irabazi zuen, eta horrez gain, Liburu Gaztea Saria ere jaso zuen iaz. Osorok aurreratu duenez, Ezekielen abenturei buruzko bigarren liburua idatzi berri du, eta udazkenean kaleratuko dute. Era berean, Jasone Osororen *Jara* liburu bildumak ere hainbat sari jaso izan ditu, eta aurtengo Juul huteskundeetan *Jara Bartzelonan* izan da DBHko ikasleen hirugarren gustukoena.

Andrea Arregik hirugarren egin du Euskadiko Neskaxena Txapelketan

Joan den asteburuan jokatu zituzten Euskadiko Aurreku eta Neskaxena Txapelketako finalak, eta Andrea Arregik hirugarren egin zuen Neskaxena Txapelketako B sailean. Leire Astigarraga laugarrena izan zen, Alaitz Egaña bosgarrena eta Miren Astigarraga zazpigarrena. A sailari dagokionean, Nerea Sasiain laugarren postuan sailkatu zen, eta Amaia Astigarraga, berriz, zortzigarren. Aurreku txapelketan, bestalde, seigarren egin zuen Eneko Gonzalez. Dantzari horiek Elgoibarko Musika Eskolako jaialdian hartuko dute parte gaur arratsaldean, Herriko Antzokian.



Ander Barrenetxea izan zen lehen elgoibartarra Zegama-Aizkorrin

Maite Maiorak min hartu zuen, eta ezin izan zuen amaitu

Zegama-Aizkorri mendiko maratonia jokatu zen domekan, eta Elgoibarko eta Mendaroko lau lagunek parte hartu zuten: Ander Barrenetxeak eta Iñigo Larizek Elgoibartik, eta Ion Revertetek eta Maite Maiorak Mendarotik, eta Barrenetxea izan zen lauretan azkarrena (4:52:01). Larizek egin zuen bigarren (4:52:14) eta Revertetek hirugarren (5:20:57). Maite Maiorak, berriaz, erikoa izan zuen Atxurin behera, eta sorbalda aterata, ezin izan zuen proba amaitu. Saillkapen orokorrari erreparatuz gero, Kilian Jornet kataluniarra nagusitu zen gizonetzokotan, eta Oihana Kortazar elgetarra emakumezokotan.



Tecnifuelle senior nesken taldeak Gipuzkoako eskubaloi kopa irabazi du

Alcortaren igoyerarekin batera, Tecnifuelle senior nesken taldeak Gipuzkoako kopa txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan, eta, beraz, Liga eta Kopako txapelkunak izan dira aurtien Elgoibarko neskek. Horrez gain, bigarren urteko alebin mutilen ere Liga irabazi dute euren mailan. Datorren asteburuan, bestalde, kopa txapelketako finalak jokatuko dituzte Sanloko hainbat taldek, senior, infantil eta jubenil mailatan. Senior mutilen bigarren taldeak Zumaian jokatuko du bihar, Pulporen kontra; neska jubenilek Donostian jokatuko dute, eta kadete mailako neskek Usurbilen. Domekan, Alcortak Gipuzkoako Kopa izango du jokoan, Eibarren kontra. Olai-zaga kiroldegian jokatuko dute norgehiagoka, 12:30ean hasita.

Gipuzkoako bigarren mailan jokatuko du datorren denboraldian Gabi Jatetxea saskibaloi taldeak



Liga Txapelketan jokatutako hogeitazpi partidetatik hamazazpi irabazi eta hiru bakarrik galdu ostean, bigarren postuan amaitu du denboraldia Gabi Jatetxea saskibaloi taldeak, eta datorren denboraldian Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatzeko txartela eskuratu du horrenbestez. Gabi Jatetxea taldeak etxean oinarritu eta sendotu du Liga Txapelketako ibilia. Izan ere, etxeko partida guztiak irabazi dituzte. Lehen postuan amaitu duen Ruibal Eibar-k taldeak ere elgoibartarrei eginiko bisitan izan zuen denboraldiko porrot bakarra.

Emakumezkoen pala txapelketa antolatu dute

10Bai taldeak emakumezkoen pala txapelketa antolatu du bigarren urtez. Interesatuak Iturri, Lanbroa, Iratxo edo Toletxe tabernetan eman dezakete izena, maiaztaren 30a baino lehen.

Udarako kirol eskaintza prestatu du Patronatuak

Kirol udalekuez gain, udarako kirol eskaintza prestatu du Elgoibarko Kirol Patronatuak. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra igeriketa, aerobik eta patinaje ikastaroak prestatu dituzte haurrentzako. Gazteek, aldiz, spinning eta aerobik ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute, eta helduek, igeriketa, patinajea eta spinning ikastaroak izango dituzte aukeran. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena.

Uste zutena baino jende gutxiago ibili da areto futbolaren jaian

Helburu soziala bete dutela adierazi dute arduradunek

Eguraldiak baldintzatu zuen areto futboleko *Gehituz* kanpaina, eta Maalako karpan uste zutena baino jende gutxiago ibili zela aitortu du Jose Ramon Iriarte Debabarrena areto futbol klubeko presidentea. Hala ere, helburu soziala bete dutela adierazi du. Iriartek esandakoaren arabera, barixakuan giro bikaina izan zen karpan, eta jende asko batu zen musika ekitaldiak ikustera. Orain balorazio ekonomikoa egiteko ordua iritsi zaie, eta aurrerantzean erabakiko dute datorren urtean egin beharrekoa.



Toke txapelketako une bat.

Hasi da Herriarteko pilota txapelketa

Asteburu honetan ekingo dio Elgoibarrek Herriarteko pilota txapelketa jokatzeari, eta Erreterria izango du lehen aurkaria. Joaneko partidak Erreterriako Fadura pilotalekuan jokatuko dituzte bihar, 17:00etatik aurrera.

Nagusientzako eskalada ikastaroa

Morkaiko mendizale elkarteak doako eskalada ikastaroa antolatu du, 18 urte-tik gorakoentzako. Kirol eskaladan hasi nahi dutenentzako ikastaroa izango da. Ekainaren 4tik 27ra izango dira saioak Olaizaga kiroldegiko rokodromoan. Bi orduko saioak eskainiko dituzte, 18:30etik 20:30era, astelehen eta asteazkenetan. Interesatuak af57@gmail.com helbidera bidali dezakete mezua.

Berrehun bat neska-mutilek hartu zuten parte Ikastolako hiruko saskibaloitxapelketan



Ikastolaren 50. urteurrenaren harira, berrehun bat neska-mutilek hartu zuten parte joan zen zapatuan hiruko saskibaloitxapelketan. Elgoibar eta Mendaroko umeak izan ziren protagonista ikastolako frontoian, eta lehia bizian jardun zuten arren, giro ona izan zen nagusi.

EMAITZAK

FUTBOLA

Anaitasuna 0 – Elgoibar 0 (Erreg.)
Tolosa 4 – Elgoibar 3 (Jub.)
Ilintxa 0 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Elgoibar 4 – Real Union 1 (Ohohezko inf.)
Elgoibar 0 – Sorraluze 5 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa
Lagunak 22 – Lapke 21 (Nag.)
Intxurre 16 – Lagunak 22 (Nag.)
Lagunak 22 – Zumaia 3 (Jub.)
Legazpi 6 – Lagunak 18 (Inf.)
Lagunak 18 – Arrasate 13 (Inf.)
Debarroko Txapelketa
Bergara 22 – Lagunak 14 (Jub.)

ESKUBALOIA

Leganes 26 – Alcorta Elg. 26 (Sen. mut.)
Catedra 31 – Leganes 31 (Sen. mut.)
Alcorta Elg. 29 – Catedra 27 (Sen. mut.)
Pneumax Elg. 28 – Arrasate 26 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 32 – Egia Bera Bera 25 (Sen. nesk.)
Beristain Elg. 33 – Arrasate 17 (Jub. mut.)
Aloña Mendi 20 – Lauko Elg. 35 (Jub. nesk.)
Pulpo 48 – Grupo Eibar Elg. 24 (Kad. mut.)
IMH Elg. 28 – Ereintza 18 (Kad. nesk.)
Astigarraga Elg. 21 – Arrasate 13 (Kad. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 26
16:00 Elgoibar – Mondragon (Jub.)
18:00 Elgoibar – Berio (Erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 26
10:30 Bizkaia – Araba (Inf. mut.)
12:00 Bizkaia – Araba (Inf. nesk.)
16:00 Araba – Gipuzkoa (Inf. mut.)
17:30 Araba – Gipuzkoa (Inf. nesk.)
Domeka, 27
10:00 Elgoibar – Eibar (Aleb. mut.)
11:15 Bankoa Elg. – Txarriduna Elg. (Inf. mut.)
12:30 Alcorta Elg. – Grupo Eibar Elg. (Sen. mut.)

Igeriketa Eguna bihar, Olaizaga kiroldegian

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna ospatuko dute bihar, Olaizaga kiroldegian. 9:45ean hasita, hainbat proba gainditu beharko dituzte 6tik 14 urtera arteko igerilariek. Txikienek ur-jokoetan hartuko dute parte.

“Gaur bai, gaur irabaziko dugu”



Iñigo Badiola eta Mari Karmen Zabala, Asier eta Nerea seme-alabekin Manchesterren, Old Trafford futbol zelai atarian.

Ainara Argoitia

Euskal futbolaren historian beste orri bat idatzi dezake gaur Athleticcek. Espainiako Kopako finala jokatu du Madrilén, Bartzelonaren kontra (22:00), eta irabaziz gero, 25. Errege Kopa etxeratu du. Aurkari gogorra izango du aurrean, denboraldi honetan titulorik eskuratu ez duen Bartzelona handia hain zuzen ere, baina Euskal Herritik joandako milaka zale-ren bultzada izango dute zuri-gorriek, Pep Guardiaren taldeari irabazten saiatzeko. Elgoibartik ere joango dira banaka batzuk, Europa League txapelketako finaleko arantza kendu eta 1983-84ko denboraldian bizitakoa errepikatzeko gogoz. Final handiaren atarian, Badiola-Zabala familia-rekin bildu da BARREN, Europa League txapelketan Athletic animatzeko egindako bi bidaietan bizitakoa jasotzeko. Gaur ez dira Madrilén izango, baina han baleude moduan animatuko dute taldea etxetik.

Athletic bizi dute Iñigo Badiolak, Mari Karmen Zabalak eta haien seme-alaba Asier eta Nereak. Alokairuan hartuta dituzte bi bazkide-txartel, eta aldian-aldian San Mamesera joaten dira Asier eta Nerea. “Gu [maztea eta biak] partida eskasetara joaten gara, Rayoren kontrakora eta halakoetara”, zehaztu du Iñigok. Athletic Europa League txapelketako final-zortzirenetarako sailkatu zenean, baina, ez zuten zalantzarik egin, eta laurak joan ziren Manchesterrera. “Bazkaltzen geundela

“Athletic futbol talde bat baino gehiago dela ikusi da. Sentimendu bat da”

erabaki genuen. Ingalaterran ez ginen sekula egon, eta bagenekien Athleticcek ez zigula luzaroan halako beste aukerarik emango... Lehenengo sarrerak atera zituztenean ni Parisen nengoen, baina bi mila sarrera gehiago salduko zituztela entzun genuenean ez genuen dudarik egin”. Eta ez ziren damutu. “Sekulakoa izan zen, zoragarria. Finala ez zen partida batera 8.000tik gora lagun joan ginen, denak goitik behera zuri-gorritz jantzita. Futbol zelaia bera, Old Trafford, historikoa da, giroa sekulakoa izan zen, eta emaitza, berriz, izugarria”, gehitu du. Partida egunean bertan joan ziren, hegazkinez, eta biharamonean itzuli. “Han ikusi zen Athletic futbol talde bat baino gehiago dela. Sentimendu bat da, eta ezin da beste talde batekin alderatu”, nabarmendu du Mari Karmenek. Nereak 16 urte ditu, eta nekez ahaztuko du Manchesterren bizitakoa: “Kalea Athletic zalez bete zegoen. Zenbat zoro! Zelaian ere Athleticen al-

deko oihuak bakarrik entzuten ziren momentu askotan”. Klean ere halatsu. “Bilbon geundela ematen zuen”, zehaztu du Mari Karmenek. Etorbide oso bat Athletic zalez beteta. “Poliziei txapelak jantzi eta argazkiak ere atera zituzten askok. Hori hemen pentsaezina da. Oso ondo hartu gintuzten”, dio Iñigok.

Taldeak berak ere lagundu zuen egun hartan Manchesterren bitzakoa ahaztezina egiten. Marcelo Bielsaren mutilek “handien pare” jokatu zuten, erasora, eta “hazita” bueltatu ziren etxera elgoibartarrak ere. Hangoa ikusita, ez zegoen Bucaresten huts egiterik. Hegazkineko txartelak erosi eta Andoni Iraola Europa League txapelketako garaikurra altxatzen ikusiko zutela sinetsita abiatu ziren Errumaniarantz, partida egunean bertan. “Nik uste dut han geunden denok irabazitzat ematen genuela Atletico Madrilen kontrako final hura, partida hasi aurretik”, aitortu du Mari Karmenek. Baina, ez. Han ez zen Manchesterreko konturik. “Dena izan zen ezberdina. Bi taldeetako zaleak ez ginen ezertarako ere elkartu klean, giroa ere beste bat zen, eta partida bera desastre hutsa izan zen”, gogoratu du Iñigok. Bere ustez, jokalaria zuri-gorriek ez zuten jakin presioari aurre egiten eta “galduta” ibili ziren, “berezikiki partida gehien jokatu dituzten jokalaririk”. Eta jakina, etxerako bidaia ere ez zen gauza bera izan. Suminduta bueltatu zirela onartu du, “broma gutxitarako gogoarekin”.

Gabarra ikusteko gogoz

Gaurkoa, baina, ezberdina izango dela uste dute Badiola-Zabala senar-emazteek eta haien seme-alabek. “Gaur irabaziko du-



Badiola-Zabalatarrak Bucaresten.

gu. Gaur inork ez du ezer ematen gure alde, eta hobeto jokatu dugu. Gure jokoa egiten badugu, irabaziko diegu”, dio zalantza handirik gabe Iñigok. Aldamenean daukan apalera begiratu eta txanpan botila ikusi dut bat-batean. “Zuek ere zabaldu beharko duzue hori astelehenean”, bota dio kazetariari.

Asierrek eta Nereak ez dute euren bihotzeko taldea titulorik irabazten ikusi, eta badute horrenbestetan entzun duten gabarra, Athletic zaleen harrotasun ikur bihurtu den gabarra hori, Santurtzitik Bilbora ibaian gora ikusteko gogoa. Iñigok, bai. Iñigok badaki zer ilusio sortu ohi duen gabarrak. 18-19 urte zituen orduan: “Ezin da berbaz azaldu gabarra zer den. Zoramena da. Ikusi ez duenak ezin du ideiarik egin! Garai hura berezia izan zen, gainera. Lau urtez jarraian, bi euskal taldek, Realak eta guk, lau liga irabazi genituen. Realaren lehenengoa gurea balitz moduan ospatu genuen eta geroko biak... itzela izan zen”.

Iñigok badaki askorentzat larregia dela Athleticen inguruan sortu den ikusmina, eta onartzen du zenbaitetan gehiegia dela, baina

besteek harrokeria ikusten duten lekuan harrotasuna ikusten du berak. “Klub handi bateko” kide sentitzeak sortu ohi duen harrotasuna. “Gure etxeko estatutuek argi esaten dute Athleticekoa izatea derrigor bete beharreko baldintza dela. Gero euren etxean izan daitezela nahi duten taldekoak, baina hemen... Gurasoen betebeharra da seme-alabei bide zuzena erakustea, gainera”, bota du ironia handiz.

Handia izan da talde zuri-gorriak, komunikabideak tarteko, sortu duen ilusioa. Athleticeko kamisetak agortu dira, eta tela zurigorria ere bai, Bilbon. Are gehiago. BBK Athletic prestamoa ere sortu du, zaleek euren taldeari laguntzeko egindako bidaiak epeka ordaindu ahal izateko. Gehiegia iristen diote horri Mari Karmenek eta Iñigok, eta zer esanik ez garai hauetan. “Asko eta asko partida guztietara joan dira, eta jakina, hori diru asko da. Baina, bai, gu bi partidatara joan gara bakarrik, baina laurok, beraz denetara joan bagina bezala”, aitortu du, hala ere, Iñigok. Gastu handia da, baina esfortzuak merezi duela uste dute. Nereak badaki oportetarako aurrekontua agortu dela euren etxean, baina ez dio horrek axola: “Tenerife hor egongo da datorren urtean ere, eta hau ez”. Horren harira, Athletic zalea izateak abantaila bat ere baduela gehitu du Iñigok: “Gu ez gara Bartzelona, eta gauza bat daukagu ona. Orain beste 30 urte izango ditugula hurrengo baterako dirua aurrezteko”.

Gaur telebistaz jarraituko dute finala. Nereak, etxeko Athletic zale amorratuena, txakurra ere jantziko du zurigorri, eta txanpana ere jarriko dute freskatzen. Athleticek Manchesterren erakutsitako jokoa erakusten badu, garaipena ziurra dela diote aho batez. “Aurten bai, aurten ikusiko dugu berriro gabarra errekan gora”, iragarri du Iñigok, atean kanpora doazela.



Mari Karmen Zabala eta bere seme-alaba Nerea eta Asier Manchesterren.

ALCORTA LEHEN MAILARA!

Joan den asteburuan jokatu zuten mailaz igotzeko bigarren kanporaketa, eta elgoibartarrek ez zuten hutsik egin. Faseko lehenengo bi partidak berdinketan amaitu zirenez, bere esku zeukan igoera Alcortak. Catedra 70 taldearen kontra jokatu zuten azken partida, eta 29-27 irabazi zuten etxekoek. Olaizaga kiroldogiko harmailek eta jokalariek bat egin zuten une horretan, eta poza nagusitu zen. Domeka arratsaldean udaletxean egin zieten harrera Alcortako jokalariei, eta zaleen babesa eskertu zuten haiek. Datorren denboraldian, beraz, Lehen Nazional mailan jokatuko du Alcortak. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net





XABIER URIBETXEBERRIA

“Horrelako esperientzia bat zor zidan eskubaloiak”

Lehen Nazional mailara igo eta erretiroa hartuko duzu. Hartutako erabakiaz seguru zaude?

Bai, modu honetan erretiratzea da onena. Gazteak ere badatoz atzetik eta haiei lekua laga behar diegu. Adinean aurrera goaz, eta igarri dut ez nagoela sasoirik onenean. Berez, lagata neukan eskubaloia, eta jubetil neskek entrenatzen hasita nengoen, baina berriz jokatzeko eskaintza egin zidan Sanlok. Nik jokatzeko dudan postuan jokatzeko du lker izetak ere, eta ikastera kanpora joan zenez, postua libre geratu zen. Liga hasita zegoela etorri ziren nire bila, eta jokatzeko gogoia piztu zitzaidan berriro, baina domekakoa izan zen azkena. Eskola Kirolean hasi nintzen, eta kadeteetan sartu nintzen Sanlon. 20 urterekin Zumaiako Pulpo taldera joan nintzen, eta bederatzirekin egin nituen han. Iritsi da lagatzeko ordua.

Nola bizi izan zenuen domekako partida?


Pozik. Zumaian egon nintzen urteetan bi aldiz galdu genuen maila, eta horrelako esperientzia bat zor zidan eskubaloiak. Domekako partidaren gauza asko pasatu zitzaizkidan burutik, eta Julen Hernandez adiskideari behin baino gehiagotan esan nion horrelako zerbait bizitzea tokatzen zitzaigula. Mailaz igotzea, eta gainera, etxean, sekulakoa izan da.

Zelan ikusten duzu Alcorta Lehen Nazional mailan?

Jendea oso kontzentratuta ikusten dut, eta mailari eustea posible izango dela iruditzen zait. Jendeak lan handia egin du, eta lan hori hasi da fruituak ematen. Eskubaloiak azken urteotan Elgoibarren hartu duen indarra ikusgarria izan da, eta gure partidetan kiroldegia beteta ikustea sekulakoa izan da. Giro horrek indarra emango die gazteei eskubaloian jokatzeko. Dularik gabe, afizioa klabea izan da igoera lortzeko. Kanpoan jokatu izan dugunean ere etxean jokatzeko gurela zirudien. Talde askok esan digute sekulako zaleak ditugula, eta egia da.

Besterik?

Eskerrak eman nahi dizkiet zuzendaritzakoei, entrenatzaileari, etxekoei eta neskalagunari. Ez zuten nahi berriz jokatzeko hastea, baina nahiko burugogorra naizenez, taldera bueltatzea erabaki nuen. Azken partidaren amama ere etorri zen kiroldegira, eta oso polita izan zen.



Erretratu zaharra



1944

Aste honetako erretratu zaharra Ainhoa Castrillejok ekarri du BARREnera, Juanita Gabilondoren argazki albumetik hartuta. 1944. urtean aterata dago, Kalegoen plazan. Urte horretan gogo-jardunak egin zituzten Elgoibarren, martxoaren 12tik 19ra, eta argazkian ikusten den bezala, gazte pila batek hartu zuten parte jarduera horietan.



I. URTEURRENA

MANUELA ANSOLA AGIRREGOMEZKORTA

2011ko maiatzaren 17an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 27, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Azpilgoeta elizan.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



I. URTEURRENA

JOSE LUIS ELUSTONDO GORRITI

2011ko maiatzaren 24an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



27 BIEMH

Astelehenean zabalduko dute BIEMH erreminta makinaren azoka. Aurten, hogeita bost herrialdetako mila enpresa baino gehiagok jarriko dute stand-a, tartean Elgoibarko eta Mendaroko hamalauk. BARREnek bina galdera egin dizkie azken horiei, eta hona hemen jasotako erantzunak. Cometelek ez erantzutea erabaki du.

- 1. Zein izango da zuen produktu izarra BIEMH azokan?*
- 2. Zer daukazue orain begiz jota?*



DANOBATGROUP

- **LANGILE KOPURUA:** laz, 1.132 langile (horietatik 240 kanpoko delegaritzetan)
- **ESPORTAZIOAK:** laz 216 milioi euro fakturatu zituzten. Txina, Alemania, Italia, Brasil eta Errusia

1. Taldeak guztira 1.400 metro koadro izango ditu bi pabeloitan banaturiko stand-etan: 1 pabeloia (D-22 F-23) eta 5 pabeloia (B-24 D-25). Bertan, bere bi marketako (Danobat eta Soralue) hamabi makina esanguratsuenak erakutsiko ditu. Berrikuntza bezala, DANOBAT Sheet Metal-ek fibra teknologian oinarriturik dagoen IRIS laser ebaketa makina aurkeztuko du. Honako hauek dira makina honen ezaugarri nagusiak: **Eraginkortasuna:** kontsumo energetikoa asko murrizten da. **Azkartasuna:** abiadura handia ebaketa eta piercing-ean. **Aldakortasuna:** prozesatu daitezkeen materialen gama handiagoa. **Trinkoa:** layout simple eta trinkoa.

2. Nazioarteari begira, Asian hazi nahi dugu, gure presentzia eta banaketa sareak handituz. Teknologiar dagokionean, ikerketaren abangoardian egon nahiko genuke. Ikerketa praktikoa sustatu nahi dugu, mundu mailan arrakasta izan dezaketen produktuetan berrikuntzak egiteko. Eta hori guztia gizartearekiko konpromiso handi batekin, bereziki Debarrenako eta Euskadiko gizartearekiko konpromisoarekin. Aberastasuna sortu nahi dugu; lanpostu berriak sortu nahi ditugu.



kondia

- **LANGILE KOPURUA:** 87
- **ESPORTAZIOAK:** %65. Alemania, Italia, Frantzia, Errusia...

1. Doitasun handiko mekanizatzeko zentro bat erakutsiko du Kondiak bere erakusmahaietan. Makina hori ezagutarazi nahi dute, baina haien helburu nagusia beste bat da. Akoin eskuratu ostean Kondiaren produktuen katalogoa asko handitu da, eta produktu horien berri ematera doaz BECera. Gaur egun, mekanizatzeko zentroen fabrikatzaileez gain, torneatzeko, artezartzeko, eta soldatzeko makinak egiten ditugu, besteak beste.

2. Gaur egungo bezeroei eutsi nahi diete, haien konfiantza irabaziz, eta era berean, bezero berriak egin nahi dituzte, Kondiaren produktu aukera handitu eta dibertsifikatzeko aukera izateko. Epe laburrera begira, bereziki Indian, Errusian eta Mexikon dute begia jarrita. Euren produktuak eta zerbitzuak (ikerketa, garapena eta berrikuntza) lehiakorragoak egin nahi dituzte. Produktu sortaren barruan makina berezien portzentajea handitu nahi dute. Era berean, "personetan oinarritutako" egungo proiektua sendotu nahi dute, eta hemengo inguru sozialaren garapen jasagarri baten alde lan egin.



Burgelu

- **LANGILE KOPURUA:** 8
- **ESPORTAZIOAK:** %30. Ertamerika eta Hego Amerika (Mexiko, Venezuela eta Kolonbia) eta Europako Batasuna (Portugal, Grezia, Alemania)

1. Aristak laminatzeko arrabola sortak erakutsiko dituzte, altzairu mota desberdinez eginikoak eta euren bezeroen beharrak aseko dituztenak. Era berean, 20 tonako presio lana egiten duen arista laminagailua ere erakutsiko dute. CN sistemari esker, pieza askorekin lan egiten denean behar den denbora murrizten da, serie laburretan.

2. Esportazioa handitu nahi dute, eta dagoeneko hasi dira euren produktuak Brasil edo Peru bezalako herrialdeetan sartzeko lanean.



UNCETA

Herramientas de calidad

- **LANGILE KOPURUA:** 119
- **ESPORTAZIOAK:** %2

1. Mitutoyoren High-Accuracy Digimatic mikrometroa jarriko dute ikusgai. 0,1 mikrako erresoluzioa duen munduko lehen mikrometroa da. High-Accuracy Digimatic mikrometro berriak (zehaztasun maila handia du), Mitutoyoren 0,1 mikrako sentsore errotatzaile digital berritzailea eta 0,5 mikrako errorea gainditzeko taillatze-torloju teknologia erabiltzen ditu.

2. Enpresa oinarrietan indartsu jarraitu nahi dute, baloreak, bisioa, misioa, helburuak eta antolakuntza orokorreko estrategiei eutsiz: Etengabeko sorkuntza bultzatu nahi dute.



- **LANGILE KOPURUA:** 35
- **ESPORTAZIOAK:** %2

1. Produkzio linea ondoan edo bertan instalatu daitekeen MACH 3A hiru dimentsioko makina egongo da ikusgai Sarikiren estand-ean (1. pabilioia F42/G43). Enpresaren produkzio eta metrologia beharrak bat egiteko soluzio konpaktu eta automatizatua da. Mitutoyo-ren MMC honek mekanizazio lanak hobetzen ditu (denbora, informazioa...) eta erreminta makinaren ondoan kokatzen da, aldi oro mekanizazio prozesuaren aurreko eta ondorengo informazioaren artean mugitzeko prozesua hobetuz. Aplikazioak anitzak izan daitezke: automozioa, aeronautika... balio erantsia duten produktueta bideratuta dago. Barakaldoko azokan BMWren disko baten neurketa jarriko dute ikusgai.

2. 2015. urterako erronka handia daukagu. Erronka honen ildo nagusia ikerketa, garapena eta ingenieritza lanak egiteko ahalmena finkatzea da. Bezeroek, jadanik, ez dute edozein makina erosten; norberaren neurria eginikoak eskatzen dituzte. Behar horietara egokitzeko Sarikik proiektu garrantzitsua dauka hurrengo urteetarako.



- **LANGILE KOPURUA:** 20
- **ESPORTAZIOAK:** %12. Frantzia, Alemania, Italia eta Latinoamerika.

1. Euren enpresak merkatura egokitzeko daukan ahalmena erakutsiko dute. Balio-aniztasun mezua eta automatizazio industrialean prestakuntza zerbitzuak emateko duen gaitasuna azalduko ditu HRE Hidraulic enpresak. Hidraulika, lubrikazioa eta finkatze sistemak garatzen dituzte, merkaturan puntakoak diren markekin, eta "ilusioz beteriko" lantalde batekin bezeroek haiengandik espero dutena gainditzen dutela adierazi dute enpresatik.

2. Datozen hilabete eta urteetarako HRE Hidraulic enpresaren asmoa merkaturan finkatzea da, euren lantzen dituzten hiru teknologia motetan baliagarriak diren teknologia aurrerakuntza berrienak barneratuz. Zerbitzu enpresa bezala hazi nahi dute, ezagutza eta ingenieritza ahalmena kontuan hartuta.



<http://www.museo-maquina-herramienta.com/>

Makina-Erremintaren Museoak ere izango du bere erakusmahaia Bienalean, erreminta makinaren azokan. Erakustazokako sarreran Mehun urtez gorako lau makina jarriko dituzte erakusgai, beirategi baten barruan. Makina horien gaineko informazioa ere emango dute beirategi horietan, hiru hizkuntzatan. Makinaren beraren izena, haren gaineko zenbait datu eta makina hori zertarako erabiltzen zen zehaztuko dute, besteak beste, Pedro Ortuondo Makina-Erremintaren Museoako arduradunak jakinarazi duenez. Horrezaz gain, lehenengo pabilioian 32 metro koadroko lekua izango du museoak, eta hor panel handi bat jarriko dute *Elgoibar, luzaroko tradizio industriala* izenburukoa. Panel horren bidez, erreminta makinak Elgoibarren izan duen indarra erakutsiko dute. Era berean, zortzi zilindro eta haien gaineko laminak ere erakutsiko dituzte.

Erreminta makinaren biurtekoa

XABIER ORTUETA, AFMko zuzendaria

“Lehiakortasunaren bidetik etorriko da sektorearen suspertzea”

Astelehenean zabalduko dute erreminta makinaren bi urtean behingo azoka, Barakaldoko BECen, eta azoka hori hizpide hartuta, Xabier Ortueta AFMko zuzendaria elkarrizketatu du **BARRENEK**.

AINHOA ANDONEGI



Zein garrantzia dauka AFMrentzat erreminta makinaren azokak?

Bi urtean behin, bezero guztien aurrean jartzeko topalekua da Bienala, eta guretzat oso azoka garrantzitsua da. Munduan bi azoka dira garrantzitsuenak: Alemanian eta Italian egiten den EMO, eta Barakaldoko Bienala. Bi urtean behin hemen erakusten ditugu gure berrikuntza guztiak, eta bezeroei soluzio eta aplikazioak erakusten ahalegintzen gara.

Aurrekoekin alderatuta, aurtengo edizioak badauka berezitasunik?

Saldu dugun erakusketa espazioa oso antzekoa da: %6 egin du gora, beraz, egoera orain dela bi urtekoaren beretsua da. Datu horrek erakusten du gure enpresa ekoizleen lana eta ahalegina. Azken batean bezeroei erakutsi nahi diegu beraien beharrei irtenbideak emateko gai garela, euren lehiakortasuna hobetzeko. Nazioartean ere ahalegin handiagoa egin dugu jendea azokara erakartzeko, eta barne merkatua ondo egon ez arren, bisitari asko etorriko diren itzaropena daukagu.

Laino beltzen artetik, berri onak ere entzun ditugu azkenaldian, eta badirudi erreminta makinaren sektoreak uste baino hobeto hasi duela urtea. Zein da sektorearen egoera?

Nazioartekotutako sektorea gara, eta asko mugitzen gara kanpoko merkatuetan. Estatu mailan egoera ez da erraza: iaz produkzioaren %20 saldu genuen bertan, baina makinak %10 bakarrik. Berez, hau da gure merkatu naturala eta operazioak askoz errazago egiten ditugu hemen, bezeroekin konfiantza handia daukagulako. Baina hazkundea nazioartetik etorri da. Iaz %22 hazi ginen ekoizpenari dagokionean, eta esportazioan %37. 2012. urtea eskari mailan, oro har, ez da espero bezain gaizki hasi, eta lehenengo hiru hilabeteetan %8,2 hazi dira eskariak. Ea urteak horrela jarraitzen duen.

Nazioartekotzea asko entzuten den kontzeptua da, baina aldi berean, arrisku bezala ere ikusten dira garatze bidean dauden Asiako herrialdeak, Txina esate baterako. Zuentzat aukera ala konpetentzia da Txina? Biak. Txinak indar handia dauka une hone-tan, eta indar hori bi alorretan erakusten du. Batetik, kontsumorako ahalmen handia dauka. Munduko kontsumo osoaren %40 Txinan egiten da, eta portzentaje hori makineta-rik ekarrita, hamar makinetatik lau Txinan saltzen dira. Hori aukera ona da guretzat. Bestetik, mehatxua ere bada, teknologia alorrean aurrerapen garrantzitsuak egiten ari direlako, uste baino azkarrago, gainera. Guk azkarrago egin behar dugu korrika, balio erantsi gehiago merkaturatzeko, eta horretan gabilta.

2008a urte oparoa izan zen erreminta makinarentzat. Orain ez dago orduko konturik, baina zailena pasatu al dugu?

Ez zait gustatzen horrelako balorazioak egitea, ez daukat bola majikorik. Momentu bakoitzak berea dauka, eta bada-kigu une hau oso zaila dela. Egoera hori kudeatzen jakin behar dugu. Enpresa batzuk oso gaizki pasatzen ari dira, baina beste batzuk gogor eutsi diote egoerari. Indarrak batu eta lehiakorrek izateko egin behar dugu lan. Ez dakit zer gertatuko den, baina argi daukat berrikuntzan, langileen prestakuntzan eta nazioartekotzean lan egin behar dugula. Horretan gabilta, eta dauzkagun zailtasun guztiekin, bide onetik goazela uste dut. Erreminta makinaren sektorea ez dago isolatuta, eta munduan gertatzen denak eragin handia dauka gurean.

Krisi garaia ikasteko une ona dela diote Elgoibarko lanbide heziketako ikastetxeek. Zure ustez, zein motako langileak behar dituzte merkatuak?

Perfil teknikoa duten langileak behar dira, Mekatronika alorrekoak, hau da, montajean, diseinuan edo manteginan lan egiten dutenak behar ditugu. Baina, oro har, teknikoak behar dira industrian, Lanbide Heziketatik hasi eta ingeniariaraino. Elgoibarren aukera onak dauzkagu alde horretatik.

IMHk eskaintza zabala dauka ikasle, langile eta langabetuentzat, eta IMHren Txandakako Ingeniaritza ere oso interesgarria da. Datorren ikasturtean, gainera, EHUko graduen artean sartuko dute. Neska-mutilak, eta bereziki, neskak animatu nahi nituzke ikasketak teknikoak egin eta industriara etortzera, behar handia dago-eta.

Finantziario eragozpena da enpresa txiki eta ertain askorentzat. Erakunde publikoetatik behar beste laguntzen zaiela uste duzu?

Erakundeek lana gizartearentzat eta, kasu honetan, enpresentzat gauzak erraztea da. Momentu honetan dirua gutxi eta garesti dago, beraz, diru hori lortzea erraztu behar-ko lukete, proiektuak bideragarri egin eta enpresek martxan jarrai dezaten. Finantziario aproposa edukitzea benetan oso garrantzitsua da.

Erreminta makinaren sektorea punta-puntako sektorea da gaur egun, baina mundu mailan non dago Euskal Herria?

Espainiako erreminta makinaren %80 hartzen du Euskal Herriak, beraz, estatuko ekoizpenaren hiru laurdenak baino gehiago Euskal Herrian ekoizten dira, eta ekoizpen horren erdia, gutxi gora behera, Gipuzkoan egiten da. Europan, bestalde, hirugarren ekoizle eta esportatzaileak gara, eta munduan bederatzigarrenak. Teknologia mailan nik esango nuke munduko lehenengo bosten artean gaudela, eta arlo batzuetan, lehenengo artean. Egoera onean gaude, baina lan handia egin behar da, eta ezin dugu lo hartu.

Nondik etorriko da sektorearen suspertzea? Lehiakortasunaren bidetik etorriko da sektorearen suspertzea. Eta, zer da lehiakorra izatea? Materiala erosi, eta langilearen lana eta ezagutza gehitu ondoren, egitea kostatu zaizuna baino garestiago saltzea, hain zuzen ere. Era berean, munduko edozein lekutan saltzeko ahalmen sendoa eduki behar dugu. Bezeroen beharretara moldatu behar da produktua eta ordaindu dezakeen prezioan jarri. Azken batean, lehiakor izaten jarraitzeak emango digu bizirik irauteko bidea.

Nondik etorriko da sektorearen suspertzea? Lehiakortasunaren bidetik etorriko da sektorearen suspertzea. Eta, zer da lehiakorra izatea? Materiala erosi, eta langilearen lana eta ezagutza gehitu ondoren, egitea kostatu zaizuna baino garestiago saltzea, hain zuzen ere. Era berean, munduko edozein lekutan saltzeko ahalmen sendoa eduki behar dugu. Bezeroen beharretara moldatu behar da produktua eta ordaindu dezakeen prezioan jarri. Azken batean, lehiakor izaten jarraitzeak emango digu bizirik irauteko bidea.



BIEMH azoka, Barakaldon, BECen

Erreminta makinaren sektorean Europako hirugarren azoka garrantzitsuenetzat jotzen dute adituek BECek eta AFMk elkarlanean antolatutako azoka hau. Astelehenean zabaldu eta bihar zortzi, ekainaren 2an, itxiko dute, eta nazioarteko 1.063 fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzaileen erakusmahaiak izango dira han ikusgai. Erreminta makinako erreferentziako herrialdeek, Alemaniak eta Txinak esate baterako, protagonismo nabarmena izango dute bertan. Elgoibar eta Mendarotik ere joango dira batzuk. Hona hemen, zerrenda.

- ◉ Pixel sistemas S.L.
- ◉ Cometel S.A.
- ◉ Kondia M.E. TALDEA S.L.U.
- ◉ Burgelu S.L.
- ◉ Ferreteria Unceta S.A.
- ◉ Metrologia Sariki S.A.
- ◉ Goiti Sdad. Coop.
- ◉ Makina Erremintaren Museoa.
- ◉ Danobatgroup S. Coop.
- ◉ Ideko S. Coop.
- ◉ Fanuc Fa Iberia S.A.U.
- ◉ Goratu.
- ◉ Mantenimiento Innovador Elgoibar XXI. S.L.
- ◉ Urkunde S.A.

PIXEL SISTEMAS

- **LANGILE KOPURUA:** 16
- **ESPORTAZIOAK:** Espainia

1. Pixel Sistemas enpresak aurkeztuko dituen produktuen artean bi nabarmentzen dira: Solid Edge, teknologia sinkronoarekin, eta 3Dko MOJO inprimatzailea. Solid Edge, teknologia sinkronoarekin, Siemens Industry Softwarek garatu du, eta erabiltzaileari ehun aldiz azkarrago diseinatzeko abantaila eskaintzen dio. BIEMH azokan erakutsiko dugun bigarren produktua Stratasys fabrikantearen 3Dko MOJO inprimatzailea da. MOJO inprimatzailearen abantaila nagusia ondorengoak dira: diseinatzailearentzat malgutasuna, eraikitze eremu murriztua eta salneurri merkea. Inprimitzeko azkartasuna eta kartutxoak aldatzeko erreztasuna dira beste onura garrantzitsu batzuk.

2. Pixel Sistemas enpresaren helburu nagusia enpresei diseinu alorrean eta produktu berrien garapenean produktibitatea handitzen laguntzea da. 1. pabilioian egongo dira, H32 – I33 stand-ean.

IK4 IDEKO

Research Alliance

- **LANGILE KOPURUA:** 107

1. Ultradoitasunezko tornua izango da euren produktu izarretako bat. Hiru ardatz dituen tornua da, kalitate optiko eta doitasun handiko piezak mekanizatzeako tornua. Granitozko egitura dauka, temperatura aldaketan aurrean egonkorragoa izan dadin, gida guztiak aerostatikoak dira, eta motor linealak eta bereizmen nanometrikoko erregelak ditu; horrek lan bolumenean gutxi gorabehera mikra 1eko doitasuna izatea ahalbidetzen du. 10.000 r/min-ko buru aerostatikoa, interpolatzeko gaitasunarekin, Fast Tool Servoarekin egiten diren mekanizazioetan.

2. Berrikuntza sustatzeaz gain, teknologia berri hori merkatura transferitzea da euren helburua, eta horren frogatuko batzuk Bienalean izango ditute. Euren lankidetzaren ereduak malgua da, eta bezero mota guztietara moldatzen dira: zerbitzu teknologikoak une jakin batean emateko ikerketa eta garapena alorreko urte askotako planak ezartzeraino. Era berean, bezeroari ikerketa eta garapen alorreko proiektuak gauzatzeko laguntzen diote, eta, bide batez, baita produktu, prozesu edo zerbitzua garatzeko duen estrategia aurrera eramaten ere.

URKUNDE

- **LANGILE KOPURUA:** 23
- **ESPORTAZIOAK:** Espainia

1. BECen erakusgai jarriko duten produktu nagusia Kit energetikoa izango da. Katea, kableatu elektriko, tubo pneumatiko-hidrauliko eta abarrek osatutako kit osoa da Kit energetikoa. Erreminta makina eta orokorrean edozein ondasun ekipamenduren eje kontrolatu eta mugikorretan erabiltzen da, eta abantaila nabarmenak eskaintzen dizkio bezeroari. Besteak beste, honako hauek: Stock-a murrizten du, erosketa eta logistikaren gaineko kudeaketa arintzen du, eskari eta erreferentzi bakarra izatea ahalbidetzen du, beharraren arabera irtenbide pertsonalizatuak diseinatzeko aukera ematen du, kit-a osatzen duten materialen erabateko bermea eskaintzen dute, entrega epe motzak, ingeniari-tza eta aholkularitza profesionala, zerbitzu osoa, eta soluzio bermatua eta 100% egiaztatua. Konektatu eta zuzenean abiaraztea suposatzen du Kit energetikoak.

2. Urkunderen asmo nagusia industria konektibitate alorrean bezeroei kolaborazio teknologikoa eskaintzea da, zerbitzu integrala eta profesionala eskainiz.



- **LANGILE KOPURUA:** 160
- **ESPORTAZIOAK:** %90. 2011n Alemaniara esportatu dute gehien. 2012ko lehen lauhilekoan India merkatu garrantzitsu bihurtu da eurentzat. Frantzia, Errusiara, Ameriketako Estatu Batuetara eta Brasilerara ere esportatzen dute.

1. Geminis tornuen eta Lagun fresadoreen azken belaunaldia erakutsiko dituzte Bienaleko D46/E47 stand-ean. Lagun fresadorearen berrikuntza nagusia mandrinatzeko kaña da. Geminis tornuari dagokionean, lau ardatzeko Geminis GT5 tornu horizontala aurkeztuko dute. Bankada berriz diseinatu dute, ardatzen arteko zabalera handituz eta txiribilak botatzeko angelua handituz.

2. Nabarmentzeko proiektuei dagokienez, Txina dute begiz jota. Enpresa filiala sortu nahi dute han, salmenta eta zerbitzurako. Txinako merkatua sakon aztertu ostean, Asiako estatuan martxan jartzeko azken xehetasunak lantzen dihardute. Bestalde, Indiako merkatuaren garrantziaz jabetuta, (apirilaren 1erako 50 makina saldu ditugu han), zerbitzu tekniko propioa jarri dute martxan.



- **LANGILE KOPURUA:** 9
- **ESPORTAZIOAK:** Espainia

1. Mantein enpresak Makina Erremintaren mantenimendu eta retrofitting zerbitzuez gain, ordezkatzeko dituen fabrikatzaileen soluzio produktiboak eskainiko ditu. Mekanizazio alorreko makinak materialez elikatzen dituzten sistema automatikoak, lemca, diametro desberdinetako metalezko hodian mozketarako eta mekanizatua egiteko makina bereziak, OMG edota altzairuzko barrak mozteko makinak eskainiko ditu, Linsinger, Emapp, Simec. Aurrerapen modura, hona hemen Mantenimiento Innovador Elgoibar XXI S.L. enpresaren web orria: www.mantein.com.

2. Makina Erremintaren munduan sustraiak errotu nahiko lituzkete, euren bezeroen konpetibitatea bermatu ahal izateko egunegun zorroztazagoa den merkatu globalizatu honetan.



- **LANGILE KOPURUA:** 21
- **ESPORTAZIOAK:** Espainia (%95) eta Portugal, bereziki.

1. 30i-B kontrolagailu sorta berria erakutsiko dute azokan. Prozesadore azkarragoak, memoria eta konektibitate gaitasun handiagoa, USBa eta energia eraginkortasun hobea dituzte kontrolagailu horiek.

2. Etorrizunari dagokionean, zalantza askorekin dabilzala aitortu dute. "Batuetan ematen du motorra jarriko dela berriro ere martxan baina beste batuetan, aldiz, ematen du motorra betiko geratu behar dela. Hala ere, garai ilun hau gainditu ostean, erreminta makina gainerako ekoizleekin batera gu ere haziko garela gaude, eta esportazioak eskariari tira egingo diolakoan".

PIXEL SISTEMAS

Pixel Sistemas S.L. - Sigma industrigunea,
Xizilion 2, 2. solairua, Bulegoa 1.
20870 Elgoibar - Tel.: 943 748 602 - Faxa: 943 743 502

**PIXEL SISTEMAS, DISEINU INDUSTRIALEKO KONPONBIDE
INFORMATIKOETAN ETA PRODUKTUAREN BIZITZA ZIKLOAN LIDERRA**

- CAD/CAM/CAE/PLM sistemen integrazioa
- Ingeniaritza Zerbitzuak
- Aholkularitza teknologikoan zerbitzuak
- Bezeroarenganako arreta pertsonalizatua. **HOTLINE**
- Ikasgeletan edota bezeroen etxean prestakuritza zerbitzua
- Software-a eta Hardware-a marxan jarzea



Bisita gaitzazu 1.ºo pabiloian,
H32 - I 33 stanean

Solution
Partner

SIEMENS

27 BIEMH

PLM

27 BIEMH
Pab 3 Stand D-30

**Industri konektibitatean adituak
Especialistas en conectividad industrial**

www.urkunde.es



Kurutz-Gain industrialdea 1-2
20850 Mendaro (Gipuzkoa)
T: (+34) 943 744 264
F: (+34) 943 744 294
urkunde@urkunde.es



LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **636 419 814**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **698 632 922**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **682 255 834**
- Neska elgoibartarra (24 urte) eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **616 883 097**
- Gizona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **686 077 316**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **669 956 017**
- Klase partikularrak ematen ditut: Batxilergoko matematika, LH, DBH, ekonomia eta kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. ☎ **943 741 042**
- Neska gazte euskalduna udan lan egiteko prest. Ostalaritzan, nagusiak edo umeak zaintzen edo ingeles klase partikularrak ematen egingo nuke lan. ☎ **608 686 814 / 943 741 674**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **616 690 415**
- Gizonezkoa lan bila. Eraikuntzan, pintore eta igeltsero lanetan esperientzia. ☎ **677 866 495**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko zein garbiketa lanak egiten esperientzia, eta baita umeak zein nagusiak zaintzen ere. ☎ **678 292 120**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Papelak legez ditut. Orduka edo interna. ☎ **669 956 017 (Ana Maria)**

- Emakumea lan bila. Esperientzia nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta papalak legez ditut. ☎ **620 591 788**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. ☎ **943 531 378 / 690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko, edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **659 101 631**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **634 887 814**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **650 152 866**
- Emakume arduratsua lan bila. Nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia. Erreferentzia ona. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Interna edo orduka. Ordu-tegi malgua eta lanerako gogoia. ☎ **633 150 376**

GARAJEAK

- Garajea salgai Urazandin, Anayak eraikinean. ☎ **943 743 251**
- Garaje itxia alokatzen dut erdialdean, Aita Agirre plaza inguruan. ☎ **688 637 301**

ETXEBIZITZAK

- Lau gelako etxebizitza alokatzen dut Urazandin. Oso eguzkitsua. Altzariekin. Prezio onean. ☎ **943 742 927 / 616 533 646**
- Pisua alokatzen dut Errosario kalean. Logela bat, egongela, komuna eta sukaldea. ☎ **630 374 124**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **620 664 454**
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **678 292 120**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egongela, sukaldea, trastelekuia. Eguzkitsua. Lehen solairua. ☎ **659 192 356 / 626 957 477**
- Etxebizitza alokagai Basarte 4, 1ean. Altzariekin. Oso egoera onean. Igogailua dauka. ☎ **943 749 068 / 634 486 339**
- Etxebizitza alokagai San Frantzisko kalean. Logela bakarrekoa. ☎ **660 609 658**
- Etxebizitza alokagai Ubitarten. Bikote batentzat. Bi logela, egongela, sukalde amerikarra. Oso eguzkitsua. ☎ **943 742 442**

BESTELAKOAK

- Elgoibarko itzulian, Otzaurtia baserrian antolatzaileek jartzen duten anoaren pareko etxean, giltz batzuk agertu dira. Udaltzaingoa daude.
- Bikientzako materiala salgai: maxi-cosi, trona... Egoera onean. ☎ **669 754 754 (Eguzkiñe)**
- Giltz sorta bat galdu dut Plaza Txikitik Kalegoen plazara bitartean. Urrutirako mando bat ere badauka. ☎ **943 740 428**
- Ikeako Strind kristalezko mahai borobila salgai. 301.571,03 erreferentzia. Estreinatuta gabe. ☎ **669 230 205**

BILGAILUAK

- Autokarabana salgai, egoera oso onean. Fiat Ducato, 1994koa. Oso-osoan ekipatua. 5-6 lagunentzako. 15.900 euro. ☎ **671 841 563**



KINTOAK

- 1947an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 9an, Sigma jatetxean. Bala-tokian aterako dute erretratua, 13:30ean. Interesatuek 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 24 0071063126. Harremanetarako: ☎ **616 048 946 (Pedro Bergara)**
- 1952an jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuek 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!
ekainetik aurrera
Eibarren

Zuloagatarren, 7 - 20600 EIBAR • Goienkale, 9 - 48260 ERMUA 943170065

zergatik
bitxiak
zuen marka
gustakoenak
smash!
organo




• Zorionak, **Jarek** Gaur urtetxo bat!. Amatxok piztuko dizu kandela, eta guk lagunduko dizugu itzaltzen. Patxo bat. Oinatz eta Luken.



• Zorionak, **Sabin**, astelehenean 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.




• Zorionak, **Ibon**, bihar zure urtebetetzea delako. Bizikletako lagunek faltan botatzen dute zure umore berezia! Itzuluzki azkar.



• Zorionak, **Nagore**, Javi, Lidia eta aittitten partetik.



• Aupa, **Iago**, txapel-dun! Bihar 3 urte! Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Jare**, gaur urte bat betetzen dituzulako. Ondo-ondo pasa, etxeko partez.



• Ezagutzen duzue zure burua? Txiki-txikia zinen, eta dagoeneko 16 urte egin dituzu. Zorionak, gurasoen eta Aidaren partez.



• Zorionak, **Lucial**. Astelehenean zure lehen urtetxoa! Maria, Ihintza eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **printzesal** Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Laguntxoek, etxekoek eta neba Arkaitzek.



• Zorionak, **Nagore**, maiatzaren 26an 9 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Oihan**, igandean 5 urte egingo dituzulako. Zelako mutil handia! Muxu handi bat, etxeko partez.



• Zorionak, **Nahia**, gaur 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, familiakoen eta bereziki, ahizpa Iratiren partez.




• Zorionak, **Anartz**, igandean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Gari**, hilaren 23an 4urte egin zenituelako. Patxo handi bat, familia guztiaren partez.



• Azkenean iritsi da eguna! Ondo pasatu, guk hala egingo dugu eta. Zorionak eta muxu bat, lagun partez.



• Aittitta eta amama, zuek ezkondu eta 57 urtera, egun berean, ezkonduko dira zuen biloba Ibai eta Ainhoa. Zorionak laukote, familiakoen partez.



• Zorionak, **Ane eta aittitta Mololo**. Ondo-ondo pasa zuen egunean.



• Zorionak, **Jon**! Astelehenean 11 urte! Familia guztiaren partez. Muxu asko.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURAK
ETA
KONPONKETAK
AZARILARI BARRIARI OBRERARI

Pedro Pérez Beristain
Xibillon Kalea 2 solte 3
943 74 35 52 - 639 76 09 19
pinturas@euskaltel.net

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRITZAKETAK - ETXeko KONPONKETAK

25 barixakua

Kultura

21:30 Zine foruma

Cuando menos te lo esperas filma landuko dute, Loredi Salegirekin. Kultur Etxean.

Aisialdia

18:00 Pintxo lehiaketa

Mendaroko sei tabernak hartuko dute parte. Zapatuan bukatuko da, 20:00etan.

26 zapatua

Kirolak

9:45 Igeriketa Eguna

Olaizaga kiroldegian.

Ate irekiak

11:00 Txandakako ingeniari-tza

Txandakako Ingeniaritzari buruzko informazioa emango dute IMHn.

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai. Txosna ere egongo da eta eguerdian Kale Kantariak irtingo dira.

27 domeka

Kirolak

11:30 Abxutxiabintzika

Atxutxiamaikak antolatuta, HH2tik LH2ra arteko umeentzako krosa. Kalegoen plazan.

Kirolak

9:45 Mendi irteera

Kalamua guraso elkarteak antolatuta, Kukuarrira egingo dute irteera Herri Eskolakoek.

28 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Gauguin, Cezanne eta beste hainbat autore landuko dituzte.

Musika

19:30 Kurtso amaierako kontzertua

Musika Eskolako auditorioan.

29 martitzena

Musika

19:30 Kurtso amaierako kontzertua

Musika Eskolako auditorioan.

Tailerra

18:00 Literatura tailerra

Gotzon Garate Udal Liburutegian *El gran Gatsby* liburua landuko dute.

OKINDEGIA

27 domeka **IBARRENEA**

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauzez

22:00 - 9:00

25 Barrenetxea

Etxeberria

26 Ibañez

Yudego

Goizez: Yudego

27 Ibañez

Yudego

28 Fernandez

Garitaonandia

29 Etxeberria

Etxeberria

30 Fernandez

Barrenetxea

31 Yudego

Yudego

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

Barixaku honetako ekintza: **DEBARROA** jolasa estreinatuko dugu. Aurkitu zure bikotekidea eta erakutsi zenbat dakizun Deba bailaraz!



Ekainaren 28an eta 29an, **ZUHATZARA GAUA PASATZERA!** Bazkideak 20 euro; bazkide ez direnak 30 euro. Izenematea ekainaren 11ra arte.

ZINEA

«Los infieles»

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00/22:15
27, domeka: 19:00
28, astelehena: 21:30



«Los infieles» Zuz.: Emmanuelle Bercot, Fred Cavayé, Alexandre Courtes, Michel Hazanavicius, Eric Lartigau, Jean Dujardin eta Gilles Lellouche. Frantzia, 2012. Iraupena: 109 min. Generoa: Komedia. Aktoreak: Jean Dujardin, Gilles Lellouche. Sexu bila dabilen gizon talde bat da filmeko protagonista. Sxua nahi dute, eta hori lortzeko edozein metodologia erabiliko dute. Zintzoak edo gaiztoak izan, berdin zaie, eta era askotariko trikimailuez baliatuko dira. Dena dela, debekatutako plazer hori lortzea ez da erraza izango.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

KEMEN BELARDENDA.

NATUROPATA, IRIDIOLOGOA ETA HOMEOPATA.

Belardietetika eta fitoterapia, janari biologiakoa, "Esencias Trinidad", BACH loreak... Kontsultak:

- Programazio neurolinguistikoa (P.N.L.)
- "DIETA FACIL", pisu kontrola
- Makrobiotika eta elikadura energetikoa
- Famili Konstelazioa (banakako eta taldeko saioak)
- Bioenergia
- Reflexo-energia (haurdunaldietan ere)
- Aurpegiko lifting japoniarra

Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 29 - Elgoibar
Tel: 943 744 031
Aurretiko zita

SANATANA DHARMA

YOGA ELKARTEA

Anginei aurre egiteko masajea.

Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaron astelehen eta
asteazkenetan: 15:00-16:30

Urasandi, 9 - Elgoibar
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131

ORTOPEDIAK

ITZIAR SARASKETA

Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

San Frantzisko, 12 - Elgoibar
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Bartolome, 10 - Elgoibar
Tel: 943 743 734

UZURI

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

VICTORIA IRAEGI

(Esku-terapiak: kiropraxia, drantzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

PODOLOGOAK

OINBERRI

Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25- Elgoibar
Tel: 943 741 795

IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645

FISIOTERAPIA

AINHOA FISIOTERAPIA

Fisioterapia eta osteopatia.
Jausoro, 6 behea.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. ERREABILITAZIO ZENTROA BERRIA! Medikua azterketak esfortzu frogarekin.

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

San Inazio, 2 - Elgoibar
Tel.: 943 743 374

fisio&más

Fisioterapia Aurreratua eta Kirol Berregokitzea

- Esku-terapia
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- Esku Drainatze linfatikoa
- Mesoterapia

- KIROL BERREGOKITZEA
- OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA

Aupa Zen Medikuntza
Estetika Zentroa
Jausoro Plaza, 1 - Elgoibar
(Sta. Klaran,
Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 943 743 440

TX4 Fitness Gimnasioa
Ifor Kale, 3 - Eibar
Tel.: 667 953 628

HORTZ KLINIKAK

IRALE

Errosario Kalea, 7 behea
Elgoibar
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

BEITIA ARRIOLA

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Elgoibar
Tel: 943 531 869





DANOBATGROUP



BIEMH-ERA GONBIDATZEN ZAITUGU

27 BIEMH

MAIATZAK 28 / EKAINAK 2

1 PABILOIA: D-22 F-23

5 PABILOIA: B-24 D-25

DANOBATGROUP

DANOBATGROUP
Arriaga kalea, 2
E-20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) Spain

Tel.: + 34 943 74 83 00
Fax: + 34 943 74 36 74
www.danobatgroup.com

